

Giza eskubideak



UN PROYECTO DE:



NOVACT

CON LA FINANCIACIÓN DE:



MINISTERIO
DE ASUNTOS EXTERIORES, UNIÓN EUROPEA
Y COOPERACIÓN



Giza eskubideak

I. Sarrera

Eskuliburu hau "BAI BAKEARI. Gazteak bake iraunkorraren eta herritartasun globalaren alde" proiektuaren barruan dago. Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo delakoak (Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak, AECID) finantzatu du proiektu hau, eta Movimiento por la Paz, el Desarme y la Libertad (Bakearen, Armagabetzearen eta Askatasunaren aldeko Mugimendua, MPDL) eta Instituto NOVACT de noviolencia (Indarkeriarik gabeko NOVACT Institutua) erakundeekin batera gauzatu da.

Hezkuntzako profesionalei erantzun batzuk emateko eta zalantza berriak pizteko pentsatutako bost gidalibururen multzoaren parte da. Galdera hauek dituzte profesional horiek: zer kezka edo interes duten gazteek gaur egungo bakearen mehatxuen inguruan, zer ulertzen duten hura osatzen duten elementuei dagokienez, nola mobilizatzen diren edo nola bultzatu daitezkeen, hezkuntzatik, gazteen balioak, jarrerak, ezagutzak eta trebetasunak. Tokian-tokian bakearen kulturaren protagonista eta transmisore gisa jarduteko, elkarrekin eta gogotsu pentsatzeko gai diren herritarren jarrerak, ezagutzak eta trebetasunak dira hauek.

Fundación Cultura de Paz (Bakearen Kultura Fundazioa) fundazioak MPDLren eta NOVACTen ekarpenarekin eta ikuskapenarekin egindako eskuliburu-bilduma honek Bakearen Kulturaren hainbat ardatz eraikitzaile jorratzen ditu, funtsezkoak gatazkak indarkeriarik gabe konpontzeko: genero-berdintasuna, kulturen arteko bizikidetzak, pobrezia desagerraraztea, garapen jasangarria eta ingurumen-justizia edo giza eskubideen defentsa zentzu zabalean. 11 eta 25 urte bitarteko gazteen hezkuntza-premiak, interesak eta kezkak (39 urte arteko pertsona gutxi hartu dute parte) dira gai hauen abiapuntuak. Gazte hauek Espainiako Estatuko bost lurraldetan -Cantabrian, Katalunian, Valentziako Erkidegoan, Madrilgo Erkidegoan eta Extremaduran- hezkuntza formaleko, informaleko eta ez-formaleko guneekin lotura dute, eta premiak, interesak eta kezkak aurretiazko diagnostiko-prozesu batean detektatuak izan dira. Horren emaitzak Cultura de Paz (Bakearen Kultura Fundazioa) Fundazioak egindako txosten batean jaso ziren, eta esteka honetan daude eskuragarri: https://www.mpd.org/sialapaz/06_Informe%20de%20diagn%C3%B3stico%20final.pdf.

Egiturari dagokionez, eskuliburu hau hainbat ataletan antolatuta dago, orokorretik zehatzera. Bakearen Kultura eraikitzeko ardatza deskribatu ondoren, ingurumena zaintzearen eta ingurumen-justiziaren inguruko diagnostikoan identifikatutako errealitateak eta erronkak aurkeztu ditugu. Jarraian, MPDLren eta NOVACTen nazioarteko hainbat ordezkartzatzen garatutako jardunbide egokien esperientziak daude ikusgai, gazteak bakea eraikitzeko prozesuetan inplikatzeko. Horietako batzuk talde-dinamika gisa zehaztu ditugu, baliabide metodologiko zehatzak iradokitze eta emateko. Ondoren, hainbat testuingurutan arlo horretako hezkuntza-lana erraztu dezaketen gomendio pedagogikoak eta estrategia orokorrak jaso ditugu. Azkenik, gako-terminoen glosario bat jarri dugu eskura, eskuliburua ulertzeko eta erabiltzeko.

Azken batean, eskuliburu hau ez da soilik erreferentzia-esparru bat, baizik eta tresna praktiko eta hurbil bat, alternatiba iraunkorrak eta bidezkoak eraikitzea helburu duten hezitzaileei laguntzea bilatzen duena. Baliabide bizia izan dadila nahi dugu, ikaskuntzako, ekintzako eta beste etorkizun batzuk posible direla sinesten duten prozesu kolektiboen pizgarri.

II. Gaien deskribapena

Giza eskubideak bakea bilatzen duen edozein gizarteren oinarri etiko eta juridikoa dira, pertsona guztiek bizitza duina bermatzeko beharrezkoak diren aitortza eta babes baldintza berdinak izatea bermatzean oinarrituta. Eskubide hauek ez dira existitzen estatuen edo afiliazio espezifikoaren borondatearen ondorioz; **pertsona guztien berezko eskubideak dira, bizirik egoteagatik.**

Hala ere, hauek egikaritzea, edozein pertsonaren garapen integralerako ezinbestekoa den arren, ez dago bermatuta eta borondate politikoaren mende dago. Eskubide unibertsal eta besterenezin hauek honako eskubide hauek biltzen dituzte: bizitzarako eta osotasun fisikorako, hezkuntzarako, osasunerako, etxebizitzarako, lan duinerako, parte-hartze politikorako, kulturarako edo ingurune osasuntsu baterako sarbidea.

Giza duintasuna eskubide guztien oinarria da. Gizaki orok berezko balioa du, eta balio hori aitortu eta errespetatu behar da edozein egoeratan, jatorria, generoa, erlijioa, gizarte-klasea, sexu-orientazioa, genero-identitatea, gaitasun funtzionala edo beste edozein baldintzagatik bereizketarik egin gabe. Horrela, giza eskubideen helburua ez da bakarrik pertsonak botere-abusuetatik babestea; elkarrekiko errespetuan, elkartasunean eta erantzukizun partekatuan oinarritutako bizikidetza sustatu ere egiten dute.

Hala ere, Giza Eskubideetan Oinarritutako Ikuspegiak gogorarazten digu giza eskubideei buruz hitz egitea ezin dela mugatu nazioarteko arauen aitortzara edo itunen betetze formalera. **Era berean, gizarte-, politika- eta ekonomia-egiturak eraldatzea dakar, herritar guztien parte-hartze aktiboa, erreala eta bidezkoa bermatzeko, batez ere historikoki baztertuta edo diskriminatuta egon diren taldeena.** Bakearen Kulturaren makoan giza eskubideak sustatzeak, beraz, esan nahi du pertsona guztiek eskubide horien babesa eta sarbide eraginkorra izan dezaten bermatzea. Gizarte bidezkoagoak, kohesionatuagoak eta parte-hartzaileagoak sustatzea dakar. Gizarte hauetan duintasuna ez da pribilegio bat izango, berme komuna baizik. Bakea ez da indarkeriarik eza bakarrik, justiziaren, berdintasunaren eta gizateria partekatuen aitorpen aktiboa baizik. Ikuspegi honek, beraz, Estatuaren egitura osatzen duten eta "betebeharrak dituzten" horien gaitasunak garatzen laguntzera bultzatzen gaitu, eskubide horiek bermatzeko, babesteko, errespetatzeko eta sustatzeko duen betebeharra betetzeko. Era berean, guztiok gara 'eskubideen titular' eta gure gaitasunak sustatzeko laguntzera gidatzen gaitu, eskubide horiek aldarrikatzeko.

III. Errealitateak eta erronkak gazteekin gai hau lantzeko, gure diagnostikoaren arabera

Gazte hezitzaile gisa egiten dugun lanerako pizgarriak izatea espero dugun hezkuntza-esperientzien aurkezpen zehatza egin aurretik, aipatutako diagnostikoan identifikatu genituen ondorio nagusietako batzuk partekatuko ditugu.

Zeregin honi ekiteko, gazteek gatazka nola ulertzen duten ikusi behar dugula oinarritzat hartu dugu, zentzu zabalean eta, bereziki, giza eskubideak betetzeari edo ez-betetzeari dagokionez. Bakegintzako ardatz honen garapenean laguntzeko, dagoeneko erabiltzen dituzten edo ikasi nahiko lituzketen aurre egiteko mekanismoak ezagutzea ere beharrezkoa da. Horregatik, bakeari eta gatazkari buruz dituzten kontzepzioei buruz ateratako ondorio nagusiak aurkeztuko ditugu jarraian, baita horiei aurre egiteko nahiago edo desiragarriago diren estrategiei buruz ere.

Indarkeriarik eza / Gatazken ebazpen baketsua

Diagnostikoaren arabera, **parte hartzen duten gazteek bakearen kontzepzio indibidualista izan ohi dute batez ere**, bakea gehiago lotu ohi dute lasaitasun pertsonalarekin eta ongizatearekin, eta gutxiago antolaketa kolektibotik abiatutako gizarte justu bat eraikitzearen inguruko balioekin.

Deigarria da, halaber, **gatazkari buruzko ikuspegi negatibo nagusiaren presentzia**. Ulegarria da hau testuinguru sozial lehiakorretan, non etsaitasunen eskalada normalizatu den eta bakea gerra eza bezala soilik ulertzen den. Hala ere, jende gutxi ikusten du elkarbizitzaren berezko errealitatea dela gatazka eta modu positiboan jorratu daitekeela, ase gabeko beharrak nabarmentzeko, bidegabekeriak detektatzeko eta indarkeriarik gabe aurre egiteko aukera dela, alde guztientzat irtenbide asegarriak bilatzeko.

Ikuspegi honen ildotik, **saihestea da gazteek gehien aukeratzen duten aurre egiteko estrategietako bat**, eta hori desmobilizatzaile faktore bat da. Lankidetzaren estrategia desiragarrien artean agertzea pozgarria da, norberaren beharrak beste pertsonenekin asetzeko interesa islatzen baitu.

Diagnostikoak erakusten du, halaber, indarkeriaz hausnartzerakoan, **gazteek batez ere indarkeria zuzena identifikatzen dutela**, neurri txikiagoan indarkeria kulturala eta are gutxiago indarkeria estrukturala (ikus VI. Glosarioa). Interesgarria da, hala ere, **ezagutzen dituzten gatazka bortitzei buruz galdetzean, jende askok pobrezia, bazterketa, migrazio politikak edo ustelkeria bezalako fenomeno estrukturalak aipatzea**.

Bakearen ikuspegi honen ildotik, eskubideen urraketa egoera bati aurre egitean, gazteen zati handi batek banakako erantzuna aukeratzen du, hala nola laguntza zuzena eskaintzea edo baliabide pertsonalak partekatzea. **Jende gutxi aukeratzen du ekintza kolektiboa.**

Identifikatu diren hezkuntza-erronkak

Ondorio hauetan oinarrituta, indarkeriarik ezarekin eta gatazken ebazpen baketsuarekin lotutako hezkuntza-erronka nagusiak hauek lirateke:

1.- **Tokikoa globalarekin lotzea**, munduan gertatzen diren maila guztietako indarkeria egoerak agerian uztea, esku-hartzearen tokiko testuinguruarekin duten lotura azpimarratuz.

2.- Bakegintzan eta indarkeriarik ezaren praktikan parte hartzen duten **gazte eredugarriak hurbiltzea**, munduko leku askotarikoetatik. Horrela, gazteek adibide zehatzak izango dituzte, beren kezkak ekintza kolektibo eta bidezkoetan eraldatzeko pizgarriak, bakea lasaitasun indibidualaren bilaketara murrizten den ideiatik aldenduz.

3.- **Bakearen ikuskera positiboa sustatu** (ikus Glosarioa) eta gatazka nahi ez den edo saihestu daitekeen zerbaitekin lotzen duen ideiarekin hautsi. Helburua da helaraztea gatazka aukera izan daitekeela ondoeza aitortzeko, akordioak bilatzeko sormena lantzeko eta harremanak zaintzeko. Eta sormenerako bide ere izan daitekeela gatazka, akordioak bilatzean eta harremanak zaintzean, horri zuzenean, aditasunetik harago, oldartu gabe eta lankidetzan aurre egiteko trebetasunak garatuz.

4.- **Indarkeriaren** —zuzena, egiturazkoa eta kulturala— **adierazpen askotarikoen** eta giza eskubideekin, desberdintasunarekin eta zapalkuntzarekin duten elkarguneen **inguruan sentsibilizatzea**. Horri esker, indarkeria mota hauek nola adierazten diren, haien kausak eta ondorioak, edo haien elkargune anitzek nola funtzionatzen duten hausnartu ahal izango dute gazteek; horiek salatzeak aukera aztertzen, pertsona bakoitzak indarkeriak areagotzeko edo hauei aurre egiteko prozesuan duen rola hausnartzen eta horiek gainditzeko moduak aztertzen lagundu diezaieke.

5.- **Ekintza kolektiboan konfiantza sendotzea**, elkarreetan bilduz, elkartuz, eztabaidatuz eta elkarrekin hausnartuz, isolamendua eta ongizate pertsonalaren bilaketa eskusiboa indartzen duen indibidualismo nagusiaren alternatiba gisa. Bakea eraikitzeak eta indarkeriarik eza praktikatzeko eraldaketa handiak lortzeko konpromiso kolektiboak behar direla azpimarratzea da gure erronka.

Giza eskubideak

Diagnostiko honetan parte hartu duten pertsonen giza eskubideen defentsaren inguruan zer uste duten, eta dituzten interesak eta kezkak identifikatu ditugu, horiei arreta jarri diegu, eta horretan parte hartzeko duten joerari buruz galdetu diegu. Ikusi dugu **eskubideen aurkako diskurtso erreakzionarioek** eragin nabarmena izan dutela,

gaur egun pertsona guztien eskubideen urraketa eza, babesa eta sarbidea zabaltzea eskatzen duten gizarte-eskaera gero eta handiagoen aurrean. Izan ere, **inkestatutako hainbat pertsonak (ia % 8k) adierazi dute giza eskubideak gobernuak banakako askatasuna mugatzeko inposaketa direla edo ez direla unibertsalak**. Horrek dei egiten digu nabarmentzera diskurtso hauek gizarte-justiziarekin eta giza eskubideekin lotutako hitzen esanahia desitxuratzen dutela, beren benetako agenda zapaltzaileak ezkutatzeko eta zilegitasuna lortzeko.

Mundu osoan giza eskubideen aurka egiten diren mehatxuengatik gazteek duten kezkaren sustapenari eta mehatxuok mundu osoan errespetatzen dituzten bultzatzeari buruzko lanak aurkeztu duen beste erronketako bat da diagnostiko horretan parte hartzen dutenak, aurkeztu zitzaizkien bidegabekeria-egoeren aurrean, **ekintza indibidual baten alde egiten dutela nagusiki, eta ez hainbeste ekintza kolektibo baten alde**. Azpimarratu behar da, eszenatoki hipotetiko hauetan, eta pentsamendu indibidualistarekin bat etorritik, % 44k erantzun indibiduala aukeratzen dutela (zapalduetako pertsonarengana hurbiltzea, laguntza eskaintzea...), % 22k ekintza kolektiboa aukeratzen dutela (taldeko ahaleginak biltzea bidegabekeria horri aurre egiteko, goi-mailako agintariekin taldean hitz egitea egoera hau geldiarazteko...) eta % 21ek axolagabekeria eta ekintzarik eza erakutsi dute. Horrek eskatzen digu ahalegin handiagoa egitea **“pertsonala politikoa da” hori nabarmentzeko; izan ere, indarkeria, desabantaila edo banakako eta kolektiboko bazterketa egoera askotarikoak eusten dituzten baldintza sistemikoak antolaketa kolektiboaren bidez desegiten ez badira, ez baita injustizia egoerarik eraginkortasunez desagerraraziko**. Banakako ahalegin deritzonak arrakasta pertsonala lor dezake termino neoliberaleretan ulertuta, baina ez ditu injustiziak erreproduzitzen dituzten baldintzetatik ia bat ere aldatuko.

Hala ere, injustizien aurka jarduteko eta, nolabait, giza eskubideen defendatzaile bihurtzeko duten prestutasunari dagokionez, kontuan izan behar da inkestatutako pertsonen erdiak baino gehiagok **injustizia egoera batean esku hartzeko joera dutela eta beren ekintzek munduko beste leku batzuetako pertsonen bizitza hobetu dezaketela uste dutela**, beraz, aukerentzako bidea dago.

Bestalde, deigarria da inkestatutako pertsonen % 60k, bidezko kausak defendatzen dituzten buruzagi edo mugimenduei buruz galdetuta, ez zutela izenik eman, eta horrek agerian uzten du **beharrezkoa dela eredu inspiratzaileak eskaintzea**, kezka ekintza bihurtzea eta antolakuntza kolektiboaren bidez gizarte-aldaketa lortzea posible dela transmititzen dutenak.

Identifikatu ditugun hezkuntza-erronkak

Ondorio horiek erreferentziatzen hartuta, hauek dira gazteen motibazioa eta gaitasunak sustatzeko hezkuntza-zereginetan identifikatzen ditugun erronkak, gazteek parte hartzen duten pertsona guztiek giza eskubideak izateko bermea zabaltzen:

1.- **Giza eskubideen inguruko alfabetatze kritikoa sustatu**, haren jatorria, oinarri etikoa eta izaera unibertsal eta besterenezina agerian utziz. Horrek eskubideen aurkako komunikabideen eta mezu politikoen analisi kritikoa sustatzea ekarriko du, "askatasuna" edo "justizia" bezalako kontzeptuak manipulatzeko, desinformazioa sortzeko eta gorrotoa sustatzeko moduak nabarmenduz. Aldi berean, marko hau "nork bere burua salba dezala" esatea baino hobea dela azaleratzea ekarriko du, eta aldarrikatzen duten askatasunaren ideia zalantzan jartzea, pribilegio baten defentsa baino ez baita.

2.- **Agerian uztea esperientzia pertsonal bidegabeek kausa estruktural sozial eta politiko zabalagoak dituztela**, hau da, botere-sistemek norbanakoak bultzatzen dituztela leku bat edo bestea okupatzera, norberaren baldintzen edo identitateen arabera (generoa, klasea, migrazio-egoera, etab.) eta leku horiek baldintzatuko dituztela pertsona bakoitzari aurkeztzen zaizkion eskubideetarako sarbidea osotasunez gozatzeko edo ukatzeko aukera eraginkorrak. Eguneroko bizipen eroso edo menpeko hauek ohikoak dira ondasun berdinak partekatzen dituztenen artean.

3.- **Nabarmentzea ekintza kolektiboaren erabilgarritasuna eta beharra injustiziak** mugatzeko eta gizarte osoarentzako eskubideetarako sarbide handiagoa lortzeko bidean aurrera egitea, gure mundua hobetu duten ekintza horien **adibide inspiratzaile** historikoak eta hurbilekoak emanez. Horrek dakar lider bakartien kontakizuna zalantzan jartzea eta antolatuta egon, pentsatu eta elkarrekin lan egiteko beharra aldarrikatzea.

4.- **Gazteen parte-hartzea eta lidergoa sustatzea giza eskubideen defentsan**, bidegabekeriei buruzko kezka ekintza zehatz iraunkorretan isla dezaten errazten saiatuz, gure esku-hartze testuinguruetan haien ekimenak diseinatzeko eta gauzatzeko espazioak eskainiz eta, horrekin batera, funtsezko gaitasunak garatuz, hala nola talde-lana edo indarkeriarik gabeko komunikazioa. Horrek, gainera, bere ekintza-eremua zabaltzea ahal izango du, baldin eta tokiko kausak eta borroka globalak lotzen dituzten sare eta gazte-proiektu transnazionalak sortzea lortzen badugu.

IV. Praktika egokiak

Jarraian, bakegintza prozesuetan gazteen parte-hartzea bultzatzeari buruzko zenbait esperientzia aurkeztuko ditugu, pertsona guztien giza eskubideetarako sarbidea zabaltzea helburu dutenak. MPDL eta NOVACTeko nazioarteko ordezkaritza batzuetako taldeek azpimarratzen dituzte esperientzia horiek, eta eskuliburu hau eskuartean dugunontzat pizgarri izatea espero dute.

Jarraian bildu ditugun jardunbide egokietan agertzen diren proiektuetan, ikus daiteke giza eskubideen defentsa egiteko berebizikoa dela proposatutako esku-hartzean parte hartzen duten pertsonen kezkak eta errealitateak modu irekian entzutea. Horrela,

pertsona desberdinekin elkartzea eta eztabaidatzea bultzatuko da, ekimen propioak sortzeko oinarri komun bat eraikiko da eta giza eskubideak defendatzea guztion lana eta guztion onerako dela azaleratuko da, argi eta garbi kalte egiten dien statu quo hori mantendu eta zalantzan ez jartzeko aukeraren aurrean. Ideia da, Palestinan egiten den bezala, gai deserosoei aurre egiteko espazio ausarta sortzea.

Tunisia

Altxa Ahotsa Jaialdia

Lantzen duen BKren gaia	X	Genero berdintasuna eta indarkerien prebentzioa
		Ingurumena zaintzea
	X	Giza eskubideen defentsa
		Kulturartekotasuna eta diskriminazioaren aurkako borroka.
		Pobreziaren aurkako borroka
	X	Indarkeriarik eza / gatazken ebazpen baketsua / beste eduki espezifiko batzuk
Bestelako gaiak	Klima-justizia	
Helburua/k	Azken lau urteotan hainbat gizarte-eragilerekin batera egindako ibilbidea aprobetxatzea. Bertan, gaur egun ekimen honen bihotza eta ahots nagusia diren gazte-klubek sareak indartzea bilatu dugu. Oinarri sendo honetatik abiatuta, gazteek ez dute soilik kultur eragile gisa parte hartzeko espazio bat irekitzen, eragin politikoko prozesu batean solaskide aktibo gisa ere jarduten dute, eta horrek agintariekin zuzenean elkarriketan aritzeko eta beren eskaerak eta proposamenak agenda publikoan kokatzeko aukera ematen die. Aldi berean, jaialdiak gazteen arteko trukea sustatzen du, pieza artistikoak elkarrekin sortuz. Pieza hauek ez dira bakarrik adierazpen sortzaileak, eraikuntza kolektiborako, elkarrekiko aitortzarako eta gizarte-eraldaketarako tresna ere badira.	
Proiektuaren hartzaile den edo lotura duen biztanleria	Jatorri oso anitzetakoak diren eta errealitate konplexuak bizi dituzten gazteak. Lehenik eta behin, hiriburuko metropoli-barrutian kokatuta dauden defentsa eta gizarteratze zentroen inguruan kokatzen diren eta historikoki marjinalizatuta dauden	

	auzoetan bizi diren 13 eta 16 urte bitarteko nerabeak daude. Auzo horietan hainbat bidegabekeria gertatzen dira, hala nola legearekiko gatazkak, osasun mentaleko arazoak edo familia-dinamika disfuntzionalak. Bigarrenik, hiriburuko eskola publikoetara joaten diren 14 eta 16 urte bitarteko gazteek parte hartu dute. Hezkuntza formalerako sarbidea eta lehenengoekin alderatuta pribilegio maila batzuk izan arren, egunero beren bizitzako ibilbideak markatzen dituzten indarkeria zuzenaren hainbat adierazpeni aurre egiten diete. Azkenik, landa-eremuetako gazte-etxeetara joaten diren 15 eta 23 urte bitarteko gazteak ere sartzen dira proiektuan. Lurralde horietan, Estatuko zentralismoak ez die jaramonik egiten: oinarrizko zerbitzuak eta lan-aukerak urriak dira, eta garapen-aukerak oso mugatuak. Lan hori gizarte zibil antolatuarekin estu-estu koordinatuta egiten da, lurraldeetan bazkide estrategiko gisa jarduten duten tokiko elkarten bidez, eta gazte horiek dauden erakundeen inplikazio aktiboarekin; izan ere, erakunde horiek beren langileen zati bat bideratzen dute arreta-, prestakuntza- eta komunitate-indartze-prozesuetan laguntzera.
Kokapena edo esku-hartze eremua	Tunisia
Ba al dago esperientzia honek oinarri duen Bakearen Kulturaren gaiaren edo ardatzaren lorpenen egoera hobeto ulertzeko aukera emango digun informazio gakorik?	Klubak sortzeko prozesua 2023ko irailean hasi zen eta urrian genozidioa hasi zen, eta horrek giza eskubideez hitz egiteko balio izan zuen. Giza eskubideen gaia ikuspegi kritiko batetik jorratzen duten antzezlanak eta bideo laburrak egin ziren.
Iraupena	Jaialdiak 3 egun iraun zuen, gehi kapitalizaziorako eta azken aurkezpenerako egun bat.
Esku-hartze estrategia eta/edo metodologia(k)	Jaialdia prestakuntza eta adierazpen espazio gisa sortu zen. Bertan, diziplina artistikoak giza eskubideak gogora ekartzeko eta horien inguruan hausnartzeko baliatu ziren. Antzerki, zinema, pintura, edukien sorkuntza eta bestelako kultur

	adierazpenetako tailerren bidez, parte-hartzaile gazteek hizkuntza komuna aurkitu zuten kezka adierazteko, alternatibak aztertzeke eta beren komunitateek dituzten arazoak ikusgarri egiteko. Gatazkak prebenitzea modu praktikoan landu zen gazteen klub autokudeatuen esperientziaren bidez. Gune horiek herritartasunerako eta elkarbizitzarako laborategi gisa eratu ziren. Bertan, gai delikatuak buruzko elkarriketa irekia sustatu zen, zine-eztabaida ariketak egin ziren eta kazetaritza herritarreko piezak sortu ziren. Horrela, jaialdia ez zen soilik erakusleho artistiko izan, baizik eta narratiba kritiko eta eraldatzaileen eraikuntza kolektiborako prozesu ere. Pedagogia-tresnen eta gaien hautaketa zuzenean sortu zen inplikaturako gazteen eskaeretatik, edukiak egokiak zirela bermatuz. Horrela, esku-hartzearen landa-eremuetan, migrazio irregularra —gizarte-elkarriketetan etengabe presente dagoen fenomeno— eztabaida eta sorkuntza artistikoaren ardatz bihurtu zen, eta tokiko biztanleriaren kezka eta interesekin lotura zuten lanak sortu zituzten. Hiri-auzo baztertuetan, berriz, zapalduen antzerkia tresna gako bihurtu zen eguneroko indarkeria zalantzan jartzeko eta, publikoarekin batera, gatazkak saihesteko moduak eta erantzun posibleak galdetzeraz gonbidatzen gaituzten narratiba alternatiboak sortzeko.
Beharrezko materialak	Mihiseak, akrilikoak, pintzelak, mugikorak.
Jardueraren garapena	1. Erakunde publikoekin eta elkarteekin konfiantzazko lankidetzak ezartzea. 2. Gazteen interesak identifikatzea. 3. Interesetan, indarkeriarik ezean eta giza eskubideetan oinarritutako prestakuntza teknikoak. 4. Gazteen klubak indartzea, helburuak eta karta etikoa ezartzea. 5. Antolatzaile gazteak eta jaialdiaren lekua eta data hautatzea, erantzukizunak jartzea, materialak erostea eta agenda diseinatzea. Jaialdiaren atariko gisa, antolatzaile gazteak elkartu zituen prestaketa saio bat egin zen. Bilera hau funtsezkoa izan zen, geroago publikoari aurkeztuko zitzaizkion hainbat artelanak irudikatzeke aukera eman baitzuen. Egun honetan, rol eta arduren banaketari buruzko erabaki kolektiboak hartzea sustatu zen, parte-hartzaile bakoitzak ekarpenak egiteke espazio bat aurki zezan ziurtatuz. Horrez gain, karta etikoa eta elkarbizitzarako arauak garatu ziren elkarlanean, elkarrekintzak gidatzeko, gatazkak saihesteko eta elkarrekiko errespetua indartzeko esparru komuna izateke. Beste une gako bat 10 tailer artistikoen

		antolaketa izan zen, taldeen eraketa heterogeneoa izan zedin eta txoko eta jatorri askotariko gazteen arteko trukea erraztuz. 6. Behin ateak publikoarentzat ireki zirenean, Jaialdia topagune anitz gisa garatu zen: klubaren arteko nahasketa aktiboa eta parte-hartze horizontala sustatu ziren. Ahal zen guztietan, gazteak tailerretan gidari-lanak egitera animatu ziren —edukiak sortzeko, antzerkirako, pinturarako edo beste diziplina batzuetarako izan—, horrela haien protagonismoa eta lidergo-gaitasuna indartu zen. Programa modu dinamikoan egituratu zen: goizak prestakuntza tailerretarako eskaini ziren, eta arratsaldeak, berriz, guztiek parte hartzeko osoko bileretarako gorde ziren, hala nola zinema-eztabaida eta forum-antzerkia. Aldi berean, eragin-tailerra garatu zen. Jaialdiaren antolakuntza-printzipio nagusia bihurtu zen eta jardura guztiei koherentzia eta zentzua eman zien azken emanaldi batekin amaitu zen.
Ikusitako arriskuen (A), zailtasunen (Z) eta lorpenen (L) analisia. Zailtasun nabarmenik egonez gero, haiek gainditzeko mekanismoak adierazi.	A	Esku-hartzea gertatzen den testuinguruak hainbat erronka ditu, eta horiek baldintzatzen eta, batzuetan, mugatzen dute gizarte- eta hezkuntza-ekintza. Diktadura-erregimen baten itzulera erakundearen autonomia asko mugatu du, erabakiak estatu-aparatuan kontzentratzen dituen eta tokiko mailan ekintza-marjinak murrizten dituen zentralismo sendo batek markatutako herrialde batean. Horri gehitzen zaio gizarte- eta hezkuntza-ekimenak laguntzeko finantzaketa-falta estrukturala, eta horrek zaildu egiten du epe ertain eta luzeko prozesuak mantentzea eta areagotu egiten du kanpoko laguntzekiko mendekotasuna. Egoera hau biztanleriaren artean beldur sentimendu zabaldu batek markatzen du, eta horrek eragina du bai herritarren parte-hartzean, bai komunitate-prozesuetan duten konfiantzan. Testuinguru honetan, gizarte-erakundeek arau aldakorretan jarduteko zailtasunari aurre egin behar diote, izan ere, araudiak ustekabearen aldatzen dira eta etengabeko ziurgabetasun giroa sortzen dute. Kasu batzuetan, baldintza hauek esku-hartzeak etetea edo bertan behera uztea ere behartu dute, erakunde ofizialek haien jarraipena baimentzeari uko egin diotelako. Erronka horiei segurtasun neurri gehigarriak hartu eta erabilitako hizkuntza egokitu beharra gehitzen zaie: ezinbestekoa izan da hiztegi pedagogikoa berrorientatzea, "indarkeriaz" edo beste kontzeptu delikatu batzuek zuzenean hitz egitea saihestuz, gazteak agerian ez uzteko edo hezkuntza-proposamena kanpoko inposizioekin edo estilo kolonialen ikuspegiekin lotu zezaketen interpretazioak ez sortzeko.

	Z	Testuinguruak dituen zailtasun nagusien artean, gazteen parte-hartze erreala eta iraunkorra sustatzeko beharra dago. Gazteek prozesu kolektiboetan aktiboki parte har dezaten lortzea erronka bat da erakundeekiko mesfidantza eta aldatzeko aukeren aurrean etsipena nagusitzen den eszenatokietan. Ez da nahikoa espazioak irekitzea: pazientzia eta etengabeko lana eskatzen du, kanpoko esku-hartzeen onuradun gisa ez ezik, protagonista gisa aitortuak senti daitezen ahalbidetzeko. Erronka honi konfiantzaren gaia gehitzen zaio, lurraldean behar bezain bizkor jarduteko eta zilegitasuna izateko funtsezko elementua. Gazteekin lotura sendoak ezartzeak, baita espazio ezberdinetan dauden egitura publikoekin ere, denbora, etengabeko presentzia eta tokiko dinamiken ezagutza sakona eskatzen ditu. Praktikan, urte askoko lanaren ondoren bakarrik finkatzen diren prozesuak dakartza horrek, non koherentzia, entzutea eta jarraitutasuna edozein ekimen iraunarazteko ezinbesteko baldintza bihurtzen diren.
	L	Testuinguruaren zailtasunak gorabehera, ekintzen iraunkortasuna eta gazteen gizarte-erlaketarako gaitasuna indartzen dituzten lorpen garrantzitsuak ahalbidetu ditu esperientziak. Aurrerapen esanguratsuenetako bat laguntza-sare zabal eta sendo bat finkatzea izan da. Honek hainbat gizarte-eragile elkartzeko eta elkarri lotutako proiektuen bidez jarraitutasuna bermatzen du. Lan egiteko modu honek aurreko ahaleginak desegin ez daitezen lagundu du, koherentzia bermatuz eta denboran zehar eragina indartuz. Lortutako beste mugarri bat autokudeatzeko eta beren ekimenak mantentzeko gai diren gazte txoko oso autonomoak sortzea da. Espazio hauek ez dute bakarrik lortu gazteei ahotsa eta protagonismoa ematea, topaketa paregabeak ere sustatu dituzte: normalean hitz egiten ez zuten pertsonak eta taldeak espazio berean elkartzea lortu dute, integrazio dinamikak sortu dituzte eta lankidetzak praktikak eta lan kolektiboa sustatu dituzte logika zatikatuak nagusi ziren inguruneetan. Era berean, prozesuak hausnarketarako eta ekintzarako aukera berriak ireki ditu indarkeriaren analisi integrala sustatuz, klima-justizia bezalako gai zabalagoekin lotuz. Ikuspegi holistiko honek erronkak elkarri lotutako ikuspegi batetik ulertzea ahalbidetu du eta, aldi berean, kudeaketa kolektiborako gaitasuna indartu du, taldeei beren ingurunearen erronken aurrean elkarrekin pentsatu eta jarduteko tresnak emanaz.

Zein aldaketa edo eraldaketa sustatu edo sortu ditu esperientzia honek?	Jaialdiko protagonista diren parte-hartzaile gazteen trebetasun mailan eragina izan du, honako puntu hauek landu baitituzte: arte tresnak, gatazken konponbidea eta elkarrekin espazioa partekatzek eragiten duen bizikidetza. Halaber, haien motibazioa eta autoestimua indartu da. Taldeak sortu dira zentroen arteko harremanetan, komunitateetan eta parekideen arteko ikaskuntzan eragiteko, gazte hauen figurak adierazten duena balioan jartzen da. Gainera, parte-hartze esperientziak eguneroko bizitzarako alternatiba bat eman die askori.
Ikasitako lezioak, etorkizunerako gomendioak eta gazteekin lan egiteko egokitzapena.	Proiektua ezartzeak etorkizuneko lana gidatu eta aberasten duten ikasgai garrantzitsuak eman ditu. Horietako bat hasieratik benetako parte-hartzea bermatzeko beharra da, ekintzei zentzua ematen dien eta inplikaturako eragile guztien jabetza bultzatzen duen ikuspegi komun bat eraikiz. Erabakiak partekatuak eta iraunkorrak direla bermatzeko, hitz egitea, eztabaidatzea eta kolektiboki adostea ezinbesteko baldintza direla frogatu da. Bide honetan, deszentralizatutako batzordeen sorrera funtsezkoa izan da erantzukizunak banatzeko eta taldeen autonomia indartzeko. Beste ikasgai garrantzitsu bat izan da zentroetako langileei ez ezik, gazteei ere erantzukizuna eskatzearen garrantzia aitortzea, bakoitzak proiektuaren barruan duen rolari dagokionez. Jarduerak errazten dituztenen eta taldeekin zuzeneko harremanean jarraitzen dutenen arteko koordinazio arinak ahalbidetu du prozesuak jarraitu ahal izatea, esku-hartze bakoitzaren iraupen zehatzaz harago. Zentzu honetan, agerian geratu da gazteekin lan egiteak eraldaketa azkarrak eta ikusgarriak sortzen dituen bitartean, helduen portaera eta jarreretan izandako aldaketek denbora eta koherentzia gehiago behar dutela. Eraldaketa hauekin batera doan zeharkako gaia izan da praktikan zein diskurtsoan tratamendu ez-bortitza proposatzea. Azkenik, ikaskuntza sakonena honako hau izan da: sarean lan egitea aurrera egiteko modurik onena dela ziur egotea. Eragileen arteko lankidetza sendotzeak erakusten du, banakako ahalegina azkarragoa izan daitekeen arren, ekintza kolektiboaren bidez bakarrik dela posible urrunago joatea eta komunitateetan eragin iraunkorrak bermatzea.

Sahara

Saharako errefuxiatuen kanpalekuetako futbol klubak

Lantzen diren BKren gaiak		Genero berdintasuna eta indarkerien prebentzioa
		Ingurumenaren zaintza

	X	Giza eskubideen defentsa
		Kulturartekotasuna eta diskriminazioaren aurkako borroka
		Pobreziaren aurkako borroka
	X	Indarkeriarik eza/gatazken ebazpen baketsua/beste eduki espezifiko batzuk
Bestelako gaiak	Bat ere ez	
Helburua/k	Testuinguru oso zaurgarrietan, hala nola Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan, kirola, kultura eta artea gizarte-eraldaketarako tresna indartsuak izan daitezkeela sinesten dugu. Ideia horretatik sortu dira proiektuaren helburuak. Lehenik eta behin, helburua indarkeria prebenitzea da entrenamendu saioen eta indarkeriarik gabeko kirolaren kulturaren sustapenaren bidez, futbola lehiakortasun-praktika hutsa izateari utzi eta elkarbizitzarako, errespeturako eta gatazken ebazpen baketsurako bide bihurtzen den lurraldean ikuspegi berritzailea sartuz. Era berean, proiektuak gazteen interes eta hizkuntzekin zuzenean konektatzen diren kultura, arte eta kirol tresna multzo bat ezartzea du helburu, gazteek horiez jabetzea eta protagonista izatea indartzen duten sormen eta parte-hartze prozesuen garapena erraztuz. Horrela, gazteak jardueren hartzaile izateaz gain, espazio seguru eta komunitarioen eraikuntzan eragile aktiboak izatea sustatzen da. Azkenik, tokiko erakundeekin lankidetzan indartzea zeharkako helburua da, haien inplikazioa ezinbestekoa baita ekimenaren iraunkortasuna bermatzeko, lurraldeko ekintzak legitimatzeko eta proiektuaren eragina epe ertain eta luzera hobetuko duten aliantzak sortzeko.	
Proiektuaren hartzaile diren edo lotura duten biztanleak	Proiektua batez ere 9 eta 16 urte bitarteko haur eta nerabeei zuzenduta dago. Adin-talde gakoa da, eskolatze eta identitate-eraketa prozesuaren erdian daudelako. Futbola elementu zentral gisa erabiliz, helburua da elkarbizitzaren, errespetuaren eta indarkeriarik ezaren balioak indartzen dituzten hezkuntza-jardueretan inplikatzeko, horrela haien garapen pertsonala eta soziala osatuz. Ikaskuntza esanguratsua sustatzeko, harreman positiboak sortzeko eta ziurgabetasunez eta aukera faltaz markatutako testuinguruaren aurrean alternatiba eraikitzaileak eskaintzeko bide eskuragarri eta hurbil bihurtzen da kirol praktika. Esku-hartzea Tindufeko saharar errefuxiatuen kanpalekuetan	

	egin da, bi wilayetan eta saharar lurralde okupatueta arreta berezia jarritz. Wilaya hauetako gazte-zentroetan prestakuntza-jarduerak pixkanaka egin dira, nerabeek parte hartu, beren burua adierazi eta erresilientzia eta agentzia indartzen dituzten kultura-, kirol- eta hezkuntza-tresnen jabetza har dezaten espazio seguruak sortuz.
Kokapena edo esku-hartze eremua	Smara - Ausserd
Ba al dago esperientzia honek oinarri duen Bakearen Kulturaren gaiaren edo ardatzaren lorpenen egoera hobeto ulertzeko aukera emango digun informazio gakorik?	Saharako kanpalekuetan, asko luzatu den itxaron egoeran bizi da jendea, denboratik kanpoko bizitza dute. Berrogeita hamar urte igaro dira haien egoerari irtenbiderik eman gabe, eta horrek gazteengan eragina izan du. Gaur egun jorratzen ari diren erronka nagusiak hauek dira: gazteen arteko indarkeria gero eta handiagoa da, eta indarkeria hau gero eta handiagoa den ondorez dago errotuta, izan ere, eskalada armatuaz harago, gatazkari irtenbiderik ez dagoela uste du biztanleriaren zati handi batek. Gure hezkuntza-esku-hartzea erantzun bat ematen saiatzen da, nahiz eta ezin dion lurraldearen baliabide faltari aurre egin. Helburua bakean laguntzea da, erraza ez den arren. Jendeak gero eta gehiago jartzen du zalantzan nazioarteko lankidetzak eskaintzen duen laguntza sistema, jasan dituzten bidegabekeria guztiengatik.
Iraupena	Ez du iraupen zehatzik. Klub bat 2021etik dago martxan eta bestea 2023tik. Biek gero eta interes handiagoa pizten dute nerabeen artean.
Esku-hartze estrategia eta/edo metodologia(k)	Esku-hartze estrategiak kirola kultur eta hezkuntza jarduerekin konbinatzean jartzen du arreta, gazteen garapenerako ikuspegi integral bat sortzeko. Gazte-zentroek entrenamendu saioak eta futbol partidak antolatzen dituzte. Espazio hauek, jarduera fisikoa sustatzeaz gain, elkarbizitza, errespetua eta indarkeriarik ezaren balioak indartzeko balio dute. Kirol jarduera hauek osatzen dituzte ikus-entzunezko sorkuntza, artea eta beste kultur adierazpen batzuk bezalako diziplinak lantzen dituzten entrenamendu saio eta tailerrekin, gazteei sormen, hausnarketa eta talde-lanerako trebetasunak garatzeko aukera emanez. Kirolaren, entrenamenduaren eta praktika artistikoaren konbinazioak, gazteak proposatutako tresnen jabe egin daitezen, ingurune akuilatzailera sortu nahi du, haien protagonismoa eta autogestiorako gaitasuna indartuz. Horrela, esku-hartzea ez da ezagutzaren transmisiora mugatzen, parte-hartze aktiboa, parekideen arteko elkarbizitza eta norberaren zein komunitatearen trebetasunak sendotzen dituzten esperientzia partekatuen eraikuntza ere sustatzen ditu.

Beharrezko materialak	Kirol, logistika eta hezkuntza baliabideak konbinatzen dituzte, guztiak gazteekin esku-hartze integrala indartzera bideratuta. Kirol baliabideen artean, baloiak eta dortsalak nabarmentzen dira. Hauek gazte-zentroen barruan entrenamenduak, partidak eta talde jarduerak egiteko aukera ematen dute. Elementu hauek ez dute futbolaren praktika errazten bakarrik, parte-hartzea, taldearekiko identifikazioa eta parte-hartzaileen motibazioa indartu ere egiten dute. Gainera, hezkuntza-materialek funtsezko zeregina dute entrenamendu saioetan eta hitzaldietan, kirol-jarduera osatzen duten edukiak eta tresnak eskainiz. Hauek erabiltzeak gai gakoak jorratzea, ikaskuntza aktiboa sustatzea eta bizikidetzaren, indarkeriarik ezaren eta garapen pertsonal eta komunitarioaren balioei buruzko hausnarketa sustatzea ahalbidetzen du. Parte-hartzearen iraunkortasuna bermatzeko, oinarritzko baliabideak, hala nola ura eta janaria, ere ematen dira, gazteek oinarritzko beharrek mugatu gabe jardueretan guztiz parte hartu ahal izan dezaten bermatuz.	
Jardueraren garapena	Jardueraren garapenak kirolaren praktika gazteen artean sustatzean jartzen du arreta, modalitate hau, bereziki antolatuta eta elkarbizitzara bideratuta, lehenago ezarri ez zen testuinguru batean. Astean zehar entrenamendu saioak eta partidak egin ahal izateko egokitutako espazio txiki batean egiten dira jarduerak, kirola jarraian eta modu erregularrean egin ahal izatea bermatzeko. Barne partidez gain, gazteek beste futbol klub batzuekin lehiatzeko aukera dute, taldeen arteko elkarrekintza, bizipenen trukea eta sare sozialen hedapena sustatuz. Entrenamendu eta partiduez gain, jarduera fisikoa osatzeko saio didaktikoak egiten dira. Prestakuntza programa hauek ikus-entzunezko sorkuntzako, artearen inguruko eta beste diziplina kultural batzuetako tailerrak barne hartzen dituzte, sormena, pentsamendu kritikoa eta elkarbizitzaren, talde-lanaren eta indarkeriarik ezaren balioak indartzen dituzten ezagutzak eta tresnak eskuratzeko diseinatuta. Horrela, proiektuak kirola eta hezkuntza modu integralean uztartzen ditu, gazteei garapen pertsonal eta kolektiborako espazio seguru eta suspergarriak eskainiz.	
Arriskuen (A), zailtasunen (Z) eta lorpenen (L) analisia	A	Proiektuak kontu handiz jorratu behar ditu testuinguru soziopolitikoarekin eta biztanleriaren sentikortasun kulturalarekin lotutako arrisku batzuk. Horietako bat da Saharako kanpalekuetan giza eskubideen kontzeptua ez dagoela guztiz barneratua, eta horrek edukia bereganatzea oztopatu eta esku-hartzearen helburuei buruzko gaizki-ulertuak sor ditzake. Era berean, "bakea" bezalako terminoen erabilerak arreta berezia eskatzen du, urteetako indarkeria eta zapalkuntzak markatutako testuinguru batean, zuzenean aipatzea

		iraingarria edo kanpoko inposizio gisa hauteman daitekeelako. Errealitate honek hiztegia eta komunikazio estrategiak arretaz birplanteatzera gonbidatzen gaitu, praktika ez-bortitzak eta gatazken ebazpenerako ikuspegi eraikitzaileak sustatzera bideratuz, biztanleriaren sentikortasuna edo proiektuaren garrantzia arriskuan jarri gabe.
	Z	Proiektuak jardueren garapenean eragina duten erronka garrantzitsuei aurre egin behar die. Horietako bat da material mugatuak izatea, bai kirol arlokoak bai hezkuntza arlokoak, eta horrek sormena, planifikazioa kontuz egitea, eta alternatibak bilatzea eskatzen du saioak eraginkortasunez egin ahal izateko. Muga honek dauden baliabideei etekina ateratzea eta dinamika ingurunearen aukeretara egokitzea eskatzen du, esku-hartzearen kalitatea arriskuan jarri gabe. Beste zailtasun nagusi bat tokiko testuingurua jarduera bakoitzean integratzeko beharra da. Dinamikei, edukiei eta ikuspegiei dagokienez, lurraldearen berezitasun kultural, sozial eta politikoekiko egokiak eta sentikorrak izan behar dira, gazteek ulertuak senti daitezen eta ekintzak esanguratsuak izan daitezen. Horrek ingurunea sakonki ulertzea, plangintza malgua izatea eta testuinguruaren errealitateetara erantzuteko estrategiak etengabe egokitze gaitasuna izatea eskatzen du. Azkenik, egoera bidegabea luzatzeak eta etsipen orokorraren egoerak, nazioarteko lankidetzak irtenbide iraunkorrak sortzeko duen gaitasunari buruzko eszeptizismo gero eta handiagoarekin batera, jardueren onarpenean eta parte-hartzean eragina izan dezakete. Komunitatearen konfiantza galtzeak proiektuaren eraginkortasuna arriskuan jar dezake, beraz, ezinbestekoa da gazteen eta haien familien behar eta itxaropenetara egokitutako ikuspegi hurbil eta gardena mantentzea.
	L	Proiektuaren lorpen nagusien artean, parte hartu duten pertsona askoren borondate ona eta konpromisoa dago: parte-hartzaile gazteak, dinamizatzaileak eta komunitateko eragileak. Horrek, testuinguruaren erronkez harago, jarduerak mantentzea eta dinamizatzea posible egin du. Giza kapital hau funtsezkoa izan da konfiantza loturak sortzeko eta prozesuek aurrera jarraitzeko. Beste lorpen garrantzitsu bat elkarri lotutako proiektuen ezarpena izan da, esku-hartze bakoitza aurreko ahaleginetan oinarrituta diseinatu egotea, koherentzia bermatuz eta aurretik egindako lana galtzea saihestuz. Estrategia honek ekimenaren jarraitutasuna eta iraunkortasuna indartu ditu, eta, aldi berean, ikaskuntza eta metodologia arrakastatsuak

	sendotzea ahalbidetu du. Azkenik, ekintza hauen konbinazioak proiektuaren eragin eta inpaktu gaitasuna handitu du, gazteen artean zein tokiko komunitatean duen irismena eta zilegitasuna zabalduz, eta proposamena kirola, kultura eta hezkuntza gizarte eraldaketarako tresna gisa sustatzeko erreferente gisa kokatuz.
Zein aldaketa edo eraldaketa sustatu edo sortu ditu esperientzia honek?	Dauden espazio kolektiboak biziberritzen lagundu du esperientziak, haien funtzionamendua bultzatuz eta topagune, ikaskuntza espazio eta lankidetzak espazio izateko gaitasuna indartuz. Proiektuari esker, espazio hauek ingurune aktiboago eta parte-hartzaileagoak bihurtu dira. Bertan, gazteek zuzenean parte hartu, esperientziak trukatu, harremanak eraiki eta beren ekimenak garatu ditzakete. Prozesu horri esker, dauden espazioek bizitza berria hartzeaz gain, komunitateak bereganatzea sustatu da, lankidetzak sare sendoagoak sendotuz eta jardueren iraupen puntualetik harago irauten duten talde-laneko dinamikak piztuz. Horrela, esku-hartzeak espazio kolektiboen iraunkortasuna hobetu du, hezkuntzarako, bizikidetzarako eta gazteen garapenerako tresna eraginkor bihurtuz.
Ikasitako lezioak, etorkizunerako gomendioak eta gazteekin lan egiteko egokitza penak.	Esperientzia honetatik ateratako ikasgai garrantzitsuenetako bat da zaugarritasun-testuinguruetan, hala nola Saharako errefuxiatuen kanpalekuetan, aisialdiko eta jolas-jardueren garrantzia aitortzea. Jarduera hauek ez dute soilik aisialdirako oinarritzeko behar bat asetzen, komunitate mailan bizikidetzak, sozializazioa eta bake prozesuak eraikitzearen tresna estrategikoak ere badira. Etorkizunerako gomendioei dagokienez, ezinbestekoa da aisialdirako espazio egituratuak txertatzen jarraitzea, kirola kultur eta hezkuntza jarduerekin konbinatuz, gazteak bere buruaren jabe izan daitezen eta trebetasun sozialak, sortzaileak eta lidergokoak garatu ditzaten. Garrantzitsua da, halaber, erabiltzen diren metodologiak eta hezkuntza etengabe egokitzea testuinguruaren sentipenetara, konfiantza eta gazteen ahalduntzea indartzen duten parte-hartze estrategia inklusibo eta indarkeriarik gabekoak sustatuz. Esperientziak azpimarratzen du aisialdiko eta hezkuntzako praktika hauek esku-hartze ikuspegi zabalago batean integratzeko beharra, bai gazteak bai prozesuak laguntzen eta babesten dituzten tokiko egiturak kontuan hartuta, horrela ekintzak mantentzea eta eragina iraunkorra izatea bermatuz.

“Bai Bakeari” proiektuaren esku-hartze eremura praktika onak egokitzeko gomendioak

Tunisiako Altxatu Ahotsa Jaialdia

Artea zaugarritasun testuinguruetan gazteekin lan egiteko lengoaia komun bihurtu daiteke, horrela zapalduaren antzerkian, muralismoan, rap-ean, graffitian, argazkigintzan edo zinema komunitarioan oinarritutako tailerrak bereziki erabilgarriak dira, **beraien eguneroko bizitzatik gertu dauden adierazpenekin konektatzen dutelako eta hausnarketaz gain, emozioak ere mugiarazten dituztelako.**

Espazio hauek **gazteek eurek lehentasunezkoztat identifikatzen dituzten arazoetan** oinarritu beharko lirateke, sorkuntza artistikoek salaketa eta eraldaketa tresna gisa funtziona dezaten.

Gomendagarria da autokudeatutako gazte klubak edo taldeak sustatzea. Talde hauek gaiak ez ezik, elkarbizitzarako eginkizunak eta arauak ere erabakitzen dituzte, eta horrela haien lidergoa eta antolakuntza gaitasuna indartzen da. **Parte-hartzea erreala izan behar da eta ez sinbolikoa**, beraz, ezinbestekoa da gazte batzordeak sortzea jaialdia edo topaketa artistikoak antolatzeke eta gazteak ez mugatzea ikusle gisa soilik parte hartzera.

Aldi berean, gazte-zentro, gizarte-zentro, auzo-elkarte eta eskolekin lankidetzan aritzea eta prestakuntza-espazioak eta **sortutakoa jendaurrean ikusgai jartzeko uneak (komunitate-aurkezpenak, zine-eztabaida edo antzerki-foruma) konbinatzea funtsezkoak dira legitimitate komunitarioa eta prozesuaren iraunkortasuna indartzeko.**

Gainera, proiektua genero, gizarte-klase eta jatorri geografiko askotariko gazteek elkarrekin sortu izanak Giza Eskubideak **ikuspegi intersektzionaletik** jorratzea ahalbidetzen du.

Sahara Futbol Kluba

Kirola oro har, eta bereziki futbola eta saskibaloia gure testuinguruan, tresna indartsua izan daitezke bakea, lankidetzeta eta errespetua sustatzeko, baita gazteen inguruneetan indarkeria prebenitzeko ere. Entrenamendu bakoitza zeharkako prestakuntza-saioekin lotu daiteke, eta horietan gai hauek jorratu: giza eskubideak, kirolean genero-berdintasuna, estadioetako arrazakeria edo pertsona migranteen eskubideak, jolasak eta hausnarketak elkar elikatu dezaten.

Inklusioa ardatz izan behar da, **genero desberdinetako pertsonen parte-hartzea baldintza berdinetan bermatuz eta komunitatearen pluraltasuna islatzen duten talde anitzak sustatuz.**

Auzoko edo udalerriko beste gazte klubekin partidak antolatzeak **lotura sozialak sendotu eta elkarbizitzarako sare zabalagoak eraiki ditzake.**

